



▼ GETARIA

Txakolin Egunean mila botilatik gora hustu eta jendetza handia bildu zen

San Anton jaiak ez dira oraindik amaitu, aste bukaera honetan izango dute jarraipena

Urtero bezala eta San Anton jaiak aitzizkiat hartuta, Getarian Txakolin Eguna ospatu zen atzo. Egun jakin hau, hain zuzen ere, txakolinaren denboraldiaren ha-

siera zehazten duena izaten da, eta hori aprobetxatuz Getariara hurbildu zen jendeak 17 txakolin-etxeren emaitzak dastatzeko aukera ezin hobeia izan zuen. Atzo-

koan, mila baino gehiago izan ziren edan ziren botilak. Sanantonak, halere, ez dira horrekin amaitu. Asteburuan eta datorren astean ekitaldi gehiago izango dira.

Joxemi BENITEZ | GETARIA

Sanantonetako egunik garrantzitsuen eta oparoena aprobetxatuz, Txakolin Egunean antolatzaile nagusiek atzoko eguna aukeratu zuten 2000. urteko uztia milioi bat botila ingurutan merkatura-tuko dela azaltzeko.

Zifra kontuak alde batera utzita, San Anton egunari ohiko goizaldeko meza nagusiarekin eman zitzaion hasiera. Ondoren, arestian aipatu bezala, jendea gainezka zegoen herriko frontoian jaiegun honen arduradun den Agustin Ezenarrók txakolinaren uztia berriaren aurkezpena egin zuen. Ekitaldi hori, jakina, Laja eta Iturbide trikitilariak girotu zuten txakolin dastaketaren aurrerapena besterik ez zen izan. Bertara hurbildu zen jendeak, 400 pezetaren truke, Getariako, Zarauzko eta Aiako 17 txakolin-etxeen emaitzak probatzeko aukera ezin hobeia izan zuen.

Aipatutako hiru herrietako alkateak ere gerturatu ziren festara goizean, eta Txakolin Egunean aurkezpenaren egon ziren, La-kuako eta Gipuzkoako Foru Al-dundiko hainbat pertsona nagusiarekin batera.

Sanantonetako egun berezi honetan omenaldiek ere izan zuten tarte eta bi pertsona izan ziren gailenduak. Alde batetik, Pedro Subijana sukaldaria; «Euskal Herriko produktuen etengabeko defentsa eta sustapenagatik». Eta



Juan Carlos RIZ

Jendeak nahi adina txakolin dastatzeko aukera izan zuen basoa 400 pezetan erosi eta gero.

bestetik, Alfredo Landa aktorea, «euskal gastronomiarekin izan duen loturagatik». Biek, Mahasti Jaun eskultura jaso zuten, brontzez egindako artelan ederra.

Arratsalde partean, berriz, herri kirolekin batera, «Upeletan Erronka» ikuskizuna eskaini zuten, dantza, bertsoa eta trikitixa

uzturtuta, eta Kuklux Band txar-ranga herriko kaleak alaitzeaz arduratu zen.

Aste bukaeran jaien jarraipena

Nahiz eta atzokoan sanantonetako egunik garrantzitsuen izan zen, jaiak jarraipena izango dute aste bukaera honetan. Igande goize-

an, esate baterako, Getariako Musika Bandak protagonismo handia izango du. Lehenik diana izango da talde honen eskutik, eta, ondoren, sanantonetako kontzertu nagusia eskainiko dute. Datorren astean, bestalde, «Getaria eta Hirugarren Mundua» jardunaldiak ospatuko dira.

Doce años de ininterrumpida producción de vino blanco

18 | GETARIA

El txakoli de Getaria es un vino blanco, joven de consumo anual, de graduación media 10,5° y de una acidez característica. Se trata de un vino «muy personal y diferenciado» que mantiene una peculiar elaboración hasta el momento del embotellado. Hay que servirlo fresco y es costumbre romperlo en el vaso de manera que desprenda pequeñas burbujas.

En 1989, tras un largo proceso de renovación y de puesta a punto del sector vitivinícola, se reconoció por parte del Gobierno de La Rioja la denominación de origen Getariako Txakolina.

Dicha denominación abarca los municipios de Getaria, Zarautz y Aia, por lo que tanto los viñedos como las bodegas están localizados en estos municipios.

Como es lógico, una gran parte de la superficie de viñedo pertenece a Getaria, así como el número de bodegas inscritas, instalaciones familiares de producciones pequeñas pero de una maquinaria de última tecnología. Por lo que no es de extrañar que la producción media anual de txakoli de Getaria se acerque a la cifra de un millón de botellas.

El encargado principal de velar por la calidad del producto, que queda reflejada en el precinto de garantía, no es otro que el Consejo Regulador de la denominación de origen Getariako Txakolina.